Tratatcen dá amarganren Articulubá dijuana, Pecatuben parcacinoa, eta orregaiti espliquetan dira sarpi sacramentubac.

Credoen amargarren Articulubac esaten deuscu: Pecatuben parcacinoa. Emen sinistu beardogu Eliza Militantean dagoala ondasun ain andi bat, nola dan pecatuben remisinoa, edo parcacinoa; eta jaquin daigun ce gauza dan, eta nola alcancetan dan, entzun eguizube:

Nola alcancetan da pecatuben parcacinoa?

Alcancetan da Christo gure Jaunen merecimentubac-gaiti, eta sacramentuben medioz.

Bago Elizan parcacinoa pecatu gustiendaco?

Bai; Ichasoco areiac baño gueiago balira ere.

Pecatuben parcacino ari, esaten deuscuna Credoac, da prerogativa andi bat, daucana gure Eliza Ama Santiac, parcaquetaco bere seme Fielen pecatubac, eta baita eztirienac ere; baiña au dá esandodana leguez, Christo gure Jaunen merecimentubacgaiti, eta sacramentuben medijoz. Jesu Christo, dijo Sn Pabloc, ill zan gu redimietaco pecatu gustiti, eta gu purifiquetaco, eguiteco gu Pueblo agradable bat bere beguijai, eta aplicaduba obra onetara; eta ala Jaun onec, bere pasino santissimoagaiti eta eriotzeagaiti merecidu euscun pecatuben parcacinoa; eta apliquetaco guri parcacino au instituidu citubau sacramentu santubac, ceintzuben medijoz emoten daube pecatuben parcacinoa Jaincoen Ministroac, ceintzuc dirian sacerdoteac, Sn Pabloc dijuana leguez:

Gu gara Jaincoen Ministroac. eta bada pecatuben parcacinoa alcancetaco medijoa dira sacramentubac, da preciso jaquitea cembat, eta ceintzuc dirian.~

Eliza Ama Santien Sacramentubac dira zazpi.

Leenengoa, Bautismoa. Bigarrena Confirmacinoa. Irugarrena Penitencia. Laugarrena Comunioa. Bostgarrena Extrema Uncinoa. Seigarrena Ordia Sacerdotala. Zazpigarrena Matrimonioa.

Zazpi Sacramentu oneec instituidu cituban Jesu Christoc parcaquetaco guri pecatubac, eta emoteco bere gracia; baña da necesario recivietea dignamente. Sacramentu oneetati, biri esaten jate illenac, ceintzuc diran, Bautismoa, eta Penitencia, edo confesinoa, cegaiti topetan daube animea, edo suponietan daube illa pecatubagaiti, eta viziquetan daube gracia Divinoagaz; eta topetan daubenian animea graciaz, aumentetan deutce. Beste bost Sacramentubai deritce vicijenac, cegaiti animea egon bear dau gracian eltcen danian recivietara: baina accidentalm.te causadu daique leenengo gracia, sucedietan danean recivietea acto contricinocoaz, pensetan badau daucala contricinoa pecatu mortalean dagoanac.

Leenengoa, cein dan Bautismoa, instituidu eben Christo gure Jaunac eguiteco Guizona Christinadu, eta Jaincoen Seme, cegaiti jaioten gara guztioc iraren Seme, Demoniuen esclavoac, eta
Ephes. 2. v. 3. apartaduric Jaincoen biotzati, dio S.n Pabloc, eta Sacramentu onegaz parcaquetan jacu pecatu originala, ceñetan jaioten garian, beste pecatu guztiaquin, cometiduditubanaquin bauticetan danac, adulto edo andisa dala: emoten jacu gracia, ceñegaz sartcen gara Elecien gremiora, santificaduba Jesu Christo gaiti, izateza Jaincoen Seme adoptivoac, eta Ceruco heredenoac. Ala aiquetan emoten deuscu S.n Pablo
Ephes. 5. 2. 6. Apostolubac esaten deuscula: Santificadu dabela Jesu Christoc bere Elizea purifiquetan dabela Bautismoagaiti, eta viciaco verbiagaiti.

Sacramentu Bautismoco au bacarric recividu daiteque bein, ez gueiago, cantetan deuscuna leguez Simbolo Latinoac.

Confiteor unum Baptisma in remissionem peccatorum. Eta Ministro propijua izan arren Sacerdotea, orregaiti necesidadeco casuban bautizadu daigue edoceñec, dala guizona, dala emacumea; dala Christauba, dala Herejea, edo gentila; lo mismo bernien Aitac, edo Amac bestenic ezpadago dauquela intencinoa eguiteco Eliza Catoliquiac eguiten dabena bauticetan dabenian bere Ministro propijuaguin.

Onegaiti bada, eta cegaiti sucedietan dirian lance asco, ceint zubetan bautizadu bear daben leenengo aldaguianac, da chito conveniente gustiz gustiac jaquin daguijen nola bautizaduco dauben.

Necesidadeco casuban bada, eta eztagoanian Sacerdoteric bautizadu daiguianic illten dagoan umea, bautizadu daigue edoceñec gorde tan dala ordena au: Leenengo Mairubac, urrengo Sacerdoteac, guero Diaconoac, guero Subdiaconoac, guero graduzcoac, guero Primaricoac, urrengo guizonac, urrengo emacumeac, guero Herejiac, edo Infielac; baña ezpada decente casuren baten Guizonac bauticetea, bautizadu daigue Andreac. Contu orain: bauticetaco precisoa dirian gauzac dira onec: Ura, intencinoa, eta Verbac, ura ezta preciso izan dedin bedeincatuba; lomismo da iturrico, erreccacoa, edo Pozucoa, eta bastante da pusca bat: Intencinoa, eguiteco Eliza Ama Santiac eguiten dabena: eta Verbac esan bear dira ura esarten dan demporan, modu onetan: Nic bautizetan zaut Aitien, eta Semien, eta Espiritu Santuben izeman: Amen: Au gustiau eguingo da turbacino baga, eta alborotadu baga. Guero vici bada umea eroango da bere demporan Elizara, cumplicetaco beste Ceremonijac dauzanac disponiduric gure Eliza Ama Santiac.

Bigarren Sacramentuba da Confirmacinoa: onec emoten deuscu gracia, eta fortaleza gueure enemigo espirituaren contra, eta confortetan gau confesetaco fede catolicoa, recividu guebena Bautismoan.

Yrugarrena Penitencia: Au da Sacramentu confesinoa, ceñegaiti Jaunco gure Jaunac parcaquetan deuscu pecatubac, confesetan ditugunac cometidubac Bautismoa recividu ezquero: baña alcancetaco parcacino au, da necesario confesinoa izan dedilla oña: eta, aimbeste onec importetan dabelaco reservetandot beste bateco espliguetea claridade guztiaz requisito necesarioac ondo recivietaco.

Laugarrena Comuninoa: Au da Eucaristiaco Sacramentu Soberanoa, ceindan Santissimo Sacramentu Altaraco; Ceñegaiti ez bacarric comuniquetan jacu gracia admirable bat, alimentetan dabena, confortetan dabena, eta fortalecietan dabena animea; espada, emoten jacula graciaco Autorea bera Jesu Christo Sacramentaduba jateco Sagraduban gueure on andiagoraco.

Bostgarrena Extrema uncinoa: Sacramentu onetan emoten jacu gracia confortativo bat, urteteco triunfante atcenengo Combate fuertiemeti, resistietaco tentacinoac; quentceco pecatuben reliquijac; eta aprovechetan dau alcancetaco gorputcen osasuna ere, conveni bada; eta orregaiti recividu bearda batzuc dauquen bildur, eta espantu baga, ceintzuc dongaro informaduta Sacramentu Santu onen virtutien, dira bildur acceleradu, eta urreratu daquijen onegaz eriotcea; eta orregaiti, edo estaube recivietan, edo recivietandaube vicijen ain atcenean, nola advertietan estauben: baña dauque batzubetan atcera pena onen culpa senideac, edo asistenteac, ceintzuc compasinoen tituluz, edo ez contristeteagaiti gueiago queijosoa, joaten jate batzubetan Sacramentu Santu onen auxilio andi baga, edo recividu cau sentidu baga. Da gauza andija Gueisoac advertidu daguiala, eta recividu daguiala espiritu contrito, eta humilladubaz.

Seigarrena Ordia Sacerdotala. Sacramentu onec emotendeutzo poderia, eta gracia Sacerdoteari consagretaco Altaraco

Santisimo Sacramentuba, eta absolvietaco pecatubetati; Ordequetan dana pecatu mortalean dagoala, queraquetan dā ondo ordenaduric, baña pecatu eguitendau mortalmente, cegaiti recivietan daben Sa cramentuba; Jaincoen gracian eztagoala.

Sarpigarrena Matrimoniua. Sacramentu onec valio dau Guizonac, eta Andriac recividu daguien gracia vicitecc alcarre gaz, eta aziteco ondo, Jaincoac emotendeurten umeac bere glorijara co. Esconquetan badira pecatu mortalean, escondunic queratu arren, pecatu eguiten daube mortalm.te cegaiti recivietan dauben Sacra mentu bat, gracian eztagozela, eta bear daube confesadu pecatu au.

Eta bardin contraientetati batac euqui badau junta edo acto carnala leenago bestien Nideren bategaz, consanguinidadeco leenengo, edo bigarren gradutan, nola dan Anaiaz, edo Osabagaz, edo Primoaz; Ustiaz, Izecogaz, edo Leencusimagaz; autubeguije ezin escondudites qui ala ondo, eta eztabela balio Matrimoniuac, cegaiti dan impedimen tu dirimenteac eta ala beardaube esplicadu leenago Confesoreaz, billa tu deguijen remedioa. Eta encarguetan deurtet esconquetan dirianai, purificadu daguijela fina, edo intencinoa, eta eztitecela joan Matrimo niora: Sicut Equs et Mulus; Dijuana Davidec, animaliac leguez; ezpada racionalac leguez, Elizeac daucan fin Santubaz vici izate co unuian, eta baque Santuban, aumentetaco especija, euqui daguijan Fiel gueiago Elizeac, eta Santu gueiago Ceruac; Cegaiti araco recivietan daubenac Matrimoniua fin Santu onecc baga bacarric asetaco euren liviandadea, onecc doaz christo dongaro, dio Tobias

Cap. 6. v. 17. Santubac, eta euren gañean dauco Demoniuac potestadea: Habet potestatem Demonium super eos.

# De la buena Confession.

Eliza Ama Santien Sacramentubetati irugarrena da Penitencia, edo confessinoa. Eliza Ama Santiac bere bigarren mandamentuban aguinguetan deusu confesetea pecatu mortalen arpian iru demporatan; eta dira; urtean bein; eriotzaco peligruba daguanian; eta comulgadu bear dabenian, badago pecatu graveric concienciejan: Berbac, ceintzucaz intimetan daben dijue ala: Bigarrena; Confesadu urtean bein, edo leenago eriotzaco peligruric badago edo comulgaduco bada.

Sacramentu au instituidu eben Christo gure Jaunac parcaguetaco Bautismoa ezquero cometidutaco pecatubac, emoten eutela Apostolubai, eta onetan Sacerdoteai facultadea absolvietaco pecatubetati, constetan dana leguez Sn Juan Evangelistagandic: Recividu eguizube espiritu Santuba, ceñi parcaguetan deutzazuben pecatubac, izango dira parcatubac; izango dira retenidubac, ceintzubei retenietan deutzezuben.

Da fedeco gauzia, eta ala dauco definiduric Trentoco Concilio Santubac, persona bat balitza ere munduco perdidubena, eta baleuco ere pecatu gueiago, Ceruban izar dagocen baño, Arboletan orri, eta Ycharoan area baño, confesetan dala ondo pecatu guztietati, eta absolvietan dabela Sacramentalmte Sacerdoteac, artaraco facultadeaz, guera tuco da parcaturic guztietati chito graviac, eta horribleac balira ere.

Da fede catolicoa au, eta estago cer dudadu, Confessino on bateti dagoala iseguiric gure Salvacinoa. Emeti ezautu daiquezube, condenetan diran christaubetati, parteric andijena, dala confessino dongaa gaiti. Eta da claruba erraroia, cegaiti Pueblo Catolicuetan dira chito guchi illten diranac Sacramentu baga: Confesaduco balira ondo, eta ilgo balira penitencia finalian, izango litzateque infalibles, eta ciertuba euren salvacinoa: eta ala condenetan badira, da donga no confesadubagaiti: Au da gaitz bat dignoa negar eguiteco

deleco necesarraquin, eta Elizeac padecietan dituban trabasu an
dietati bat declaradu ebena leguez Letrango Conciliuac Canon 22.
unum est quod maxime perturbat Sanctam Ecclesiam, falsa scilicet
penitencia. Gauza bat da especialmente perturbetan dabena gure
Eliza Ama Santia, eta da penitencia falsoa: bere Seme fielen con
fesino dongac, ala sentietan daube Santu Padreac ere. O ce ruina
ain lastimosoa!

Orregaiti bada, explicaduco ditud Doctrina onetan bre
vedade, eta claridade posibleaz condiciono, eta circunstancia precisoac
euqui bear dituban bac confesino on batec, eta Causa eta motivoac
cegaiti sarritan eguiten dirian dongac, eta Sacrilegoac. ~~~

Cembat dira Calidade edo condiciono necesarioac confesino
on bat eguiteco?

Bost.

Ceintzuc dira?

Leenengoa examina; bigarrena dolorea; Irugarrena
propositua; Laugarrena integridadea; Bostgarrena Satisfaccinoa.

Faltetan bada onectati bat penitentien culpa graveaz, izan
go da confesinoa ona?

Ez, izango da Sacrilegoa, eta dongoia.

Sacramentu penitenciacoen parte esencialac dira iru,
Trentoco conciliuaz conforme, eta dira: Biotceco contricinoa; Aozco
confesinoa: eta obreen Satisfaccinoa: Cordis contricio, oris confesio.
et operis Satisfaccio. Baina confesino batec euquico dituban
calidadeac ona izateco, dira leen esan dodana leguez bost: Leenen
goa Conciencien examinea: Bigarrena cometidu dituban pe
catuben dolorea: Irugarrena; propositu firmea emendetaco, eta
apartetaco ocasinoetati: Laugarrena integridadea, cein dan

confesetea pecatu gustiac, ichi baga bapere gravetic maliziaz edo lotzaz. Bostgarrena satisfaccinoa, cein dan cumplidu, eta executadu guria izatea, confesoreac agunquetan dabena, eta ifini obraz aldaguijen lar texen. Gustiac dira ain precisoac, nola bat falta bada penitentien culpa graveagaiti, edo ignorancia craza, edo afectadubagaiti, confesinoa izango da donguia, eta sacrilegoa. Bildur asco dago cer engui puntu onen gañean, cegaiti dagoz chito ignorancia culpable asco.

## Leenengo partea Examina.

Ce gauza da examina concienciacoa?

Pensetea ondo pecatubac, confesetaco gustiac.

Cembat dempora bear da ondo pensetaco?

Eztago dempora determinadurie, batzuc bear daube gueiago, beste batzuc guchiago; capacidadear conforme, eta confesadu baga egon dan demporiar conforme. Claruba da, egon ezin deitequiana dempora determinadurie examina oneraco, eta azegaiti berorregaiti artu bear da dempora necesario bá, eta aplicadu cuidadu bá ifinico liza tequiana importancia andico negocio baten, cegaiti au da andiena, dio Sn Buenaventurac, eta da chito ciertuba. Acierturic andijeneraco escatu bear da auxilium Espiritu Santubagandic, escaquetan jacola arguia, eta esaguetaco faltac: Onec examinaduco dira Jaincoen Leguelo Mandamentuben gañean, Eliza Ama Santiemian, pecatu mortalen edo capitalen gañean, personien estadu, oficio, edo empleuen gañean, pensetan dabela egon dan parage, edo lecubetan, tratadu daben personetan, atanetaco ala gomuteco pecatubac, ceintzucaz ofendidu daben Jaincoa, pensamentuz, berbaz, eta obraz, eta omisinoz, atzenengo ondo eguin eben confesinoti, eta confesadu deiquian guztiac siquiera mortalac, ceintzuben obligacinoa dagoan, bere especie, genero, eta bere numero ciertuban, albada; eta ecin bada

numero ciertuba pecatuben Especie, edo genero bacochean, izango da
siquiera guchi gora bera, eta abulto esan baga, asco eguiten daubena
leguez; consteetan da au guztiau Trentoco concilijoti. Sess. 14 Cap. 5.

Atara ezin bada pecatuben numeroa guchi gora bera ere, ata
ra bedi contuba egunca, asteca, edo ilea, cembat izango ciran guchi
gora bera; eta onela ere ezin bada, asco izanagaiti, esan begui
egon dan demporia, pecatu eguiteco costumbre orretan, nola dan
juramentu falsoac eguiten, maldecietan viotzeti, edo pecatu eguiten
torpemente: bada contadu ezin dana, bastante da neurritea dempo
reaz; bada Jaincoa da Aita misericordiazcoa, eta consolacino guzti
coa, eta contentetan da guizonac aldaguijanaz, eta eztau escaquetan
imposibleric. Eguinic examina competentea, gueratu arren pecatu
graveren batzuc confesadu baga billatu eztitubalaco, edo aartu facolaco,
ezta orregaiti dongaia confesinoa; baña euguico dau obligacinoa con
fesetaco pecatu azturicaco aec, leenengo confesetan danean, acorde
tan bada. Norbait bere capacidade laburragaiti aturdietan bada,
eta ezpadaqui nola eguin examinia, itandu begui nola eguin bear dabena,
edo eguin begui aldabena, eta joan bedi confesorien oñetara animoaz
erantzuteco fielmente itanguetan deutzazan, eta ezpedi desconsoladu,
bada Jaincoac eta Confesoreac ifinten daube arreo euren echeti virtuteco
eta talento laburra dauquenendaco; eta bago oneendaco ere Ceruba,
eta Salvacinoa, Davidec esan eben modubari: Homines, et Jumenta
salvabis Domine.

## Bigarren Partea Dolorea.

Ce gauza da dolorea?

Jaincoa ofenditutaco damutarium bat.

Cembat modutan da dolorea?

Bitan, bata derechona Atricinoa, eta bestea Contricinoa.

Ce gauza da Contricinoco dolorea?

Da Jaincoa ofendituta'co damutasun sobrenatural bat, iza-
napaiti ain, ona nola dan.

Ce gauza da atricinoco dolorea?

Da Jaincoa ofendidutaco damutasun sobrenatural bat,
cegaiti privadu neguijan ceruti, edo castigadu infernubaz, edo
pecatuben ichusitasunagaiti.

Bietati cein da onena?

Contricinoco dolorea, cegaiti berac bacarric justifique-
tan daben animea.

Eta atricinoac eztau justifiquetan?

Berac bacarric ez, baña bai confesinoaz batera.

Guizon batec ill badau berto bat, edo hostu badau, eta daug.
Carcelan castiguetaco, badauco damutasuna pecatu eguin dabelaco,
amenacetan daben Castigubagaiti, izango da dolore edo damutasun
ona confesinoraco?

Ez, cegaiti dan bacarric dolore naturala, eta pena tem-
poralagaiti.

Nescatilla bat, edo Alargun bat aurquiguetan bada Ceindun,
flaqueza baten jausijagaiti; eta negar eguiten badau, eta sentietan
badau aro afrentien bildurragaiti, edo daucan deshonrragaiti,
badezechazu izango dala bastante dolore au ondo confesetaco?

Ez, cegaiti eztan dolore naturala baño gueijago.

Ezta bastante, confesino onerac dolore, eta pena
bacarric naturala, ezta castigu, edo pena temporalagaiti ere;
izan bear dau dolore sobrenaturalac, eta leen esan dodana leguez,
izango da dolore contricinocoa, edo atricinocoa. Bijac beguira-
quetan deutee Jaincoari; Contricinoac sumamente ona leguez;
eta ala Jaincoa ofendidutaco pena, eta sentimentuba, izanagaiti

ain ona nola dan, da dolore perfectoa, esatendeutzaguna Contricinoa, eta da excelencia ain andicoa, nola berac bacarric justifiquetan daben animea, aun confesadu bano leenago: eta illten dana con tricinoagaz, salvetan da confesadu ezin bada ere, baña desetan dabe la; cegaiti Contricinoac encerretan dau beragan Confesinoen desea.

Atricinoco doloreac ere beguiraguetan deutzo Jaincoari, Juez leguez, ceñec castigadu neinguian pecatubagaiti, privetan nabela Ceru ti: eta Condenetan nabela Infernura, eta ala dolorea, eta pesadum brea pecatu eguin dodana castigu oneen bildurtasunagaiti; ceintzucaz Jaincoac Juez leguez amenacetan naben; eta pecatuben deformidade edo ichusitasun sobrenaturalagaiti; au da atricinoco dolorea, ceñec ere encerretan daben cerbait Jaincoen amodijoa, izanagaiti argalagoa, eta ez fiña nola Contricinoa; eta berac bacarric justificadu ez arren, justi fiquetan dau pecatuben confesinoaz batera, bada beragaiti izaoten da pecataria atritoti Contritora. Elitzatequ izango Atricino eguiaz coa, bacarric aborrecidu balitza pecatuba penien bildurtasunagaiti, eta izaoco ezpalitza Jaincoagana, Autore sobrenaturalagana dolo rea; bada bestela, bacarric pena izango litzateque motivoa, eta interpretaduco litzateque penaric ezpalego, ez leuquiala ichico peca tuba.

Eztira necesario negarrac, eta suspirioac dolorea eguiazcoa izateco; baña eztira bastante bacarric berbac, eta bularreco golpeac ere, cegaiti Jaincoa ezta paguetan exteriomdadeaquin: da preciso izan dedin viotzeco dolorea; Tridentinoac dijuana leguez: Cordis con tricio. Ycenac berac badio ere, bada contricinoac esan gura dau: viotceco quebrantamentuba, cegaiti quebrantetanditu viotzac, eta vigunguetan dau bere gogortasuna. Esatea: pecatu eguin dot, Jauna, damu dot berori ofendiduba, bacarric aoaz, viotzeco gogortasunagaz, au ezta bastante, cegaiti eztan viotzeco dolorea, ezpada verbazcoa.

Areoc eguiten daube ala; eta oneec confesetan dira don garo, dolorien faltaz. Eguiteco eguiazcoa, bearda, eguinic examina concienciatoa, cometidu dituban pecatuben bistan Jaunco ain on baten contra, cein dan bere Criadorea, bere Aita, bere Erreguea, eta bere Jauna, esan an bere biotzean: Da posible ni izanic Criatura ain dollorra, bada naz an bil bat, lur purca bat, atrevidu izan nazala ofendietan Jaunco ain andi, ain Soberano, eta ain on bat! Damudot, Jauna, ofendidudodalaco, izanagaiti ain ona nola dan: Sentietan dot, Jauna, neure animan: Ez gueiago pecaturic! Ceun eguizube emen Acto contricinocoa, brevia, eta eficaza. ~ ~ ~ ~

Atricinoendaco consideraduco dira, Galtcen dan Gloria, eta Infernuba, cenetan incurrietan daben; eta onen bistan esango dau an bere biotcean: Ni ain necijua, ain zoroa, eta Jucijo baguea, interes labur bategaiti, estimacino, vanidade, eta honrra purcabategaiti, gura izan dodala galdu Ceruba, eta merecidu Infernuba, cenegaz castiguetan ditu Jaincoac dongoac? Eta au betico! o ce disparatea! o ce necedadea! Sentietan dot Jauna, animarano ofendidu dodalaco, exponidu nazalaco aimberte penatarako, cenegaz berorrec, Jauna justamente castiguetan dau ofendietan dabena. Au badoa biotzeti, izango da atricino eguiazcoa, eta bastante da confesino onerako; barregaiti procuraduco da aldein modubar eguitea contricinoa, cein dan onena, eta confesoren absolucinoa baño leenago, cegaiti guero ija eztator carura. ~

Irugarren Partea Propositoa.

Ce gauza da enmiendien propositoa?

Da resolucino firme, eta eficaz bat iñoz ez pecatiaco eguiteco eta apartetaco ocasinoetati.

Apartetan eztana ocasinoti, aldaguiala dauco proposito eguiazcoa

Ez. ezpada faltsoa.

Ala nola dan faltsoa dolorea gueiago pecaturic ez egued

teco proposito baga, ala da falsoa pecatuac ez eguiteco propositoa, ichi
guran ezpadira pecatuben ocasino proximeac, edo urrecoac, ceparti oca
sinoa guenteen eztabenac, ametan dau peligruba, eta ametan dabenac
peligrubea, jausico da bertan, dio Espiritu Santubac. Gueiago peca
turic ez eguiteco proposito onec, esaguetan dabena Trentoco Concilijuac
consistietan dau esan dodana leguez, euquitean resolucino firme, eta
eficaz bat ez gueiago pecaturic eguiteco, guchienaz graveric edoceim
bere pecatu generotan; eta au ez urte betero, edo bico (practicadu gura
ebena leguez Penitente batec bere Confesoriagaz) ezpada vici guztico:
leenago ill, pecatu eguin baño. Esango deustazube, bada pecatarija
banas, concebiduba pecatubar, eta lur fragilecoa, nola aseguradu ne dot
eztorala gueiago pecaturic eguingo? Aitu eguidazube onetara, ceparti
importa daben ano. Gauza bat da bildur izatea, jausico dana pecatu
ban, fragila leguez, berte gauza bat da jausi ez gura izatea, mundu
ban dagoan guztiagaiti. Jausteco bildurra, jayoten da culpeen aborre
cimentuti, eta da Vorondateco actuba; eta ala chito ondo compondu deite
gue Vorondateco actuba gura izatea gueiago pecaturic ez eguitea, cein
dan propositoa, bildurtazunaz pecatu eguiteco fragila leguez, originetan
dana entendimentuco actuti, esauguetan dabena gure miseria. Bildur
izan arren jausico zariana fragila leguez, baldin confesetan zariana
badaucazu resolucino firmea pecaturic ez eguiteco, eta gura badozu
orduban ez jausi, eta eguin artaraco zeure parteti aldozuna, dauca
zu ija enmiendien proposito eguiazcoa, au da chito ciertuba.

Baña eguiten eztaubenac euren parteti aldaubena Corregieta
co: dagocenac dempora ascoan, gravemente pecatu eguiteco costumbre
donga baten, enmiendabaga; apartadu gura eztaubenac pecatuben
ocasinoetati, aldaubeta: Esango dot Clarubago: dauguenac vicijua, eta
costumbrea juretaco, eta flasfemetaco: Emacume impacienteac, eta mal
dicienteac biotzeti: regularmente eguzani eguinean bearra egui

ten daubenac: Familiaco guraso chito descuidadubac eracusten Doctrina Christianeas tempativoan, darosienac bete gomutoa euren biotzetan: Eguinic dauquenac animoa venguetaco, eurai agravio eguiten deusten guztiaguin: vici diranac pecatu torpen costumbrean euren artean, edo beste batzuguin: conserbetan daubenac adisquidetasun illicitoa, edo ocasino proximoa, edo urrecoa: Emacume profanac, gura estau benac moderadu poste escesivoa, eta estaldu gura estaubenac euren bularrac decenciaz: paguetan estaubenac aldaubela, eta restituitan estaubenac zor daubena, eta paguetan estaubenac Amarrenac, eta Primiciac: Jocularic, eta edalariac costumbres, euren eche, eta haciendeen perjucio notableaz. Oneec guztioc, eta beste onelaco bat zuc mantenietan diran artean euren viciguetan, emmienda baga, Confesadu arren, confesetan dira dongaro; Confesetan dira em miendien proposito eguiazco baga; oneec duaz zucen zucen Infer nuco vide zabaleti: eta ain ciertamente condenaduco dira, mu detan ezpadaube vicia, nola dan ciertuba, berzoguetan dabena Egus guiac. Condenaduco dira, Condenaduco dira diot barriro, erreme dio baga, cegaiti ifini gura estauben cuidaduric euren vici relaxa duban. O Cembat onelaco traguetan dituban eguneān egunean abis moac! Oneec daugue bearra confesino generalena, eta mudadu vicia, Salvadu gura badaube.

Laugarren Partea Integridadea.

Cer aiguetan dozu integridadeagaiti?

Confesetea pecatu mortal guztiac, bapere ichi baga lotzaz.

Eta venialen bat ichiten bada izango da confesinoa donguiā?

Ez.

Eta mortalen bat āzguetan bada culpa baga, izango da ona Confesinoa?

Bai.

Dago obligacinoa pecatu mortalen arbijan, confesetaco pecatu mortal guztiac, acordetan saconac cometidu ditubala, atzenengo confesino ona eguin eben ezquero, especie mudetan dauben circunstanciaquin, eta opinino chito probablean baita circunstancia agravantiac ere; Ciertubac confesaduco dira, ciertubac leguez, dudosoac, dudosoac leguez; bardin pecatu mortal ciertu, edo dudoso ezer bat gueldiguetan bada esan baga lotzaz, edo bildurrez, da confesinoa sacrilegoa, eta confesadu dituban pecatubetati echaco parcaguetan bapere.

Acordetan bazara une demporaco pecaturen batena: v.g.a deshonestoa, euguiagaiti accino, edo tocamentu indecenteac berte bere demporaco Mutiko, edo nescatillaquin, eta orainguino confesadu ezpadituzu, acordadu etzaraialaco, edo eugui eztituzulaco pecatutzat, confesinoac eztira izan orregaiti dongac, bastante da orain, concienciac erremordietan badeutzu, confesadu daguizun; baña ordubar edo guero eugui bacituban pecatu gravetzat, edo dudetan baceben cirian, edo ez, eta bildurrez, eta lotzaz iruldu badituzu confesinoren batzubetan: Confesino aec izan dira dongac, eta eguin bear da confesino generala revalidetaco.

Circunstancia mudetan daubenac especie, dira aec, ceintzuc oponietan diriala virtute distintoari, constituitan daube pecatu distintoa. Nola Elizaco gauzaren bat hosiguetan dabenac, lapurretaco pecatuben artean, cometietan dau berte bat sacrilegiocoa; eta au da circunstancia mudetan dabena especie: Nola pecatu deshonestoetan ere explicaduco da personien estaduba, (baña izentadubaga) nola esconduba bazan, aidia bazan, edo voto castidadecoa eucana, berte circunstanciaquin, 'expliguetan dana leguez seigarren mandamentuben Doctrinan.

Orrec, eta berte circunstanciac mudetan daubenac especie, acordetan dan pecatu mortal guztiaquin, eta examinan

batu ditubanaquin) confesadu dira: pecatu venialac izango da chito con veniente confesetea, baña confesadu ez arren, eta ichi arren lotzariagaiti, eta izango barregaiti donguia Confesinoa.

Onegaz artean da necesario declaretea Sacerdoteari pecatu guztiac humildadeaz, simplicidadeaz, eta prudenciaz; humildadeaz, bere delito en pisuba sentietan dabela pecatariac leguez, arrepentietan dala, eta purgadu gura dituzala, ala declaretan dau Sn Bernardoc. Serm 16. Sup. cant.

Faltetan jaco humildade au declaretan dituzanari bere pecatubac dolore baga, confusino baga, contetan baileben historija bat: escusadu bere pecatubac, edo achacadu beste batzubei: esarri Culpa Senarrari, onec emazteari, Semeai, Criadubai, edo beste bateri: ez recividu humildadeaz Confesore prudente baten ordenac, consejubac, eta correc cinoac, ceñegana sugetadu dan confesinoen actuban; au dijue Sn Agus
1. Ber. tinec, eta Sn Bernardoc, da Confesetea humildade baga. o Cembat gaitz
ibid. onelacoa dagoan confesinoetan, eta aun sarritan confesetan dirian
S. Ag. genteen artean ere.
Serm 2. Sup. Ps. 31.

Simplicidadeaz, esango dira pecatubac: au doble baga, con ciencian dagocen modubar gueitu baga, eta guchitu baga, eta araco Sinceridadeaz, ceñegaz manifestadu leusguion Jaungoicoari berari; Ceñec esaguetan dituzan nola dirian. Faltetan jaco sinceridade au, mostretan danari estan leczcoa: enrredetan dituzanari alaco moduban, nola gravea dana bere berbac, nola distinguidu ezin daben Confesoreac bere Culpac; guchiguetan dituzan alaco moduban, nola gravea dana, gura dau irudin daguiuan levea. Defecto au da chito comuna, eta da vicio grave bat, cegaiti dan jaatea directamte Jesu Christoen intencinoen contra, ceñec disponidu eben confesinoa, descubridu, eta aguertu ceitequean Sacerdoteari peniten tea egoan estaduban, ala juzgadu eguian sanamte eta aplicadu
Ses. 14 remedio convenienteac; constetandana leguez Trentoco Conciliotic.
Cap. 4.

Prudenciaz, confesaduco dira: au da terminu honestoetan, eta pre cisoetan, ichiten diriala alde batera impertinenciac, contubac, eta in gurubac, eta ez aguertu berten pecatubac, escusetan dala aldedin po sibleam faltadu baga, manifestetea, edo aguerguetea bere delitoen la guna: Modu onetan izango da confesinoa agradablea Jaincoari, eta Paraisoco guiltza preciosoa, S.to Thomas de Aquinoc dijuana leguez: Confesio et Clavis Paradisi: Ceñegaz pecatariac idigui daigue araco ate celestialac ichi ciriana bere pecatuben burdinaguin. ~ ~~

Bostgarren, eta azcenengo partea
dá Satisfaccinoa.

---

Cegauza da Satisfaccinoa?

Obedecidu gura izatea Confesoreari, eta eguin guero aguindu dabena penitenciatzat.

Satisfaccinoa Consideretan dá modu bitan. Leenengo Sacra mentuben parte esencial leguez, eta esaten deutzagu Satisfaccinoa in voto, eta consistietan dau euquitean animoa absolucinoa baño leenago, satisfacietaco guero: Animo au falta bada, confesinoa dá sacrilegoa. Bigarrena Considerctan da Sacramentuben parte inte grala leguez, eta consistietan dau ifintean obraz, confesoreac aguin guetan daben satisfaccinoa, eta esaten deutzagu satisfaccinoa in re ceindan obrazco satisfaccinoa. Au izandeitegue Jaincoari, eta Pro ximoari: Jaincoari, izango dá, Confesoreac, confesadu dituban culpac gaiti, ifinten deutzan penitencien cumplimentuba, nola dirian, Baraubac, Rosarijuac, Merac &c. Au procuradu bioda cum plietea aimbat lasterren: Cumplietan ezpada, gauza levea bada, da pecatu veniala, eta gauza gravea bada pecatu mortala; baña confe sinoa etzan izan orregaiti donguia. Beste satisfaccinoa dá Proxi moari; consistietan dau satisfacietan, confesoreac aguinguetan

daben leguez proximoari Zor jacona, edo okertu jacona: eguin jacon dañuba Soloetan, ortubetan, echean, ganadubetan &c. biurguetian quendu jacon fama, eta honra; paguetan ondo, retenidu dirian Amarrenac, eta Primiciac; eta cumplietan difuntuben Legadubac, Mesac, eta obra piac. Badago dilacino edo ichaiten culpablea cumplietan obligacino onec aldala izango da pecatu mortala, materia gravea dala, eta venial, materia levia bada.

Esan eguidazu gueiago. Batec ichiten badau lotzaz pecatu mortalen bat, salvadu deiteque, eguiten ditubala beste penitencia batzuc?

Ez, eguingo balitu ere Santu guztiac eguin dituben penitencia guztiac baño gueiago.

Eta pecatuba bada chito gravea, absolvidu leigue joan baganic Erromara?

Emen españan bai;

Suponidu daigun, pecatu eguin baleu, guizon batec carnalmente beste bategaz, edo animaliaguin, edo alaba batec bere Aitagaz, edo Anaiaz, edo coñatubagaz, edo Emacume batec beste bategaz, edo Demoniuagaz personien edo Animalien figuran; badaquichazu absolvidu leiguiala onelacoac Confesoreac?

Bai, edocein bere Confesore aprovaduc, confesetan dan obispadu artan, daucala penitenteac Cruzada Santuco Bulda.

Acusadu daigue Confesoreac penitentea Ynquisicino Santura?

Ez, biciric erreco baleube ere.

Orrela eztago escusaric bapere, pecatubac isilguetaco?

Ez, eta isilguetan dituban ac, condenaduco dá remedio baga.

Jaungoicoac permitidu daguiala, ichuric andijenetara nocoac idigui daguiela animaco Veguijac, ~~eta~~ esagutu daguien gurádaubela Voluntariamente condenadu, isilguetan baditube pecatubac lotzaz! Bada esan dodana leguez, estago, eta egon bere ezindeiteque escusaric bapere. Jaincoac bere bondade infinitoagaiti remedijadu daguiala aimberte gaitz nola dagoan onetan, izan ez tedin ain ofendidula, eta galdu eztitecen aimberte Anima Christinadu Confesino doingacgaiti: Amen.

FUNDACIÓN
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA

MAN 666